

**ARARTEKO ERAKUNDEA  
2018. URTERAKO AURREKONTUAREN AURREPROIEKTUA**

**TXOSTENA**


Hona hemen Ararteko erakundeak 2018. urterako prestatu duen aurrekontuaren aurreproiektua, Eusko Legebiltzarraren Araudi eta Gobernurako Batzordeak horren berri izan dezan eta, ondoren, bere onespena eman diezaion. Gastuak eta diru-sarrerak berdinduz, guztira **LAU MILIOI, ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST MILA EUROKOA (4.795.000,00)** da.

Beraz, %5,66 gehitu da iazkoaren aldean.

2018ko aurreproiektuko gastuen kapituluak banan-banan deskribatzen hasi baino lehen, labur azaldu nahi ditugu hori prestatzerakoan erabili ditugun irizpide eta jarraibide nagusiak, baita ere iazko aurrekontuarekin alderatuta dauden elementu eta aldaketarik garrantzitsuenak.

Ararteko erakundea gastua gutxitzeko ahalegin handia egiten ari da 2009ko aurrekontu ekitaldiaz geroztik. Bestalde, 2017ko ekitaldiko aurrekontua %98,5 gauzatzea espero da, edo, bestela esanda, xahutu gabeko soberakina %1,5koa izatea.


Egiaz, 2009tik 2017ra, erakundearen aurrekontua oro har 574.527,21 euro murriztu da, hau da, %11,24 gutxitu da (grafikoa erantsi dugu).




Baliabideak gutxitzearekin batera, dezente hazi da erakundearen jarduera.

2016. urtean, Arartekoak 10.958 jarduera burutu zituen, hots, %23 gehitu ziren 2015. urtearen aldean. 2017an, berriz, 2017-11-15erako, jada 11.487 jarduera egin dira, eta aurreko urteetako eskarmentuan oinarritutako proiektio bat eginez gero, ekitaldiaren amaieran guztira 12.635 jarduera pasatxo eginak izango dira; hortaz, berriz ere %15 gehituko dira 2016. urtearekin alderatuta.

Egindako ahalegin handia hobeto ikusten da erakundearen jardueraren bilakaerari erreparatzen bazaio, izan ere, azken lau urteotan modu esanguratsuan hazi da (ikusi grafikoa).



Era berean, erakundearen jarduera hazi egin da herritarren kexak bideratzeaz bestelako bi jardueratan.

Horrela, haur eta nerabeen arloan, etengabe hazten ari da Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jarduera –Eusko Jaurlaritzari atxikitako lehengo Haurren Defentsa-erakundearen ondorengoa-, haur eta nerabeen eskubideak babesteari dagokionez.

2017an, bulego horrek “nazioarteko” osagai edo ikuspegian sakondu du. Alde batetik, onartu egin diote European Network of Ombudspersons for Children (ENOC) sarean sartzeko eskaera, eta, horrela, hausnartzeko eta lankidetzan aritzeko gune aberats eta etorkizun handikoa zabaldu da Europako eremuan. Beste alde batetik, Haurren Eskubideen Batzordeak hurbiletik aztertzen ditu Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu zuten estatu kideak, eta Arartekoak azterketa horretan parte hartzeko gonbita jaso zuen. Modu horretan, Batzordeak behar bezala ezagutu eta balioetsi ahal izan ditu Euskadiko egoera eta ikuspegia. 2018an, bere lanari jarraipena emanez, Batzordeak zenbait



gomendio egingo ditu eta horiek haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko egin beharko den lanaren bide-orria zehaztuko dute, baita Euskadin ere.

Bestalde, Arartekoak ahalegin handiagoa egin du Europako eremuan, Europako hainbat forotan eraginkortasunez parte hartuz. Horrela, erakunde honek zuzen-zuzeneko informazioa lor dezake politika publikoak sustatzeko, eta, horiei esker, kalitateko euskal administrazioa erdiesteko: eraginkorragoa, gardena, irekia eta arduratsua.

Orobat, Arartekoak konpromisoa hartu du zenbait arlotan giza eskubideak babesteak gaur egun dituen erronka orokorrekin, eta erne erreparatzen die konpromiso horrek dakartzan ondorioei, ondasun publiko orokorrak kudeatzeari edo gizarte-kohesioari eta gobernatze onari dagokienez. Hortaz, bere ustez, bere lanean oso kontuan hartu behar du dagoeneko Estatuko mugek soilik zehazten ez duten esparru bat; esparru hori maila anitzeko harremanen bidez gauzatzen da eta bertan hainbat adituk hartzen dute parte, era askotako ikuspegiatik begiratuta.

Horregatik, kanpoko ekintzaren arloan, arartekoak lan-ildo bat bultzatu zuen 2015ean hautatu zutenetik, 30 urtez Europako hainbat erakundetara bete zituen era askotako karguetan izandako eskarmentuari etekina atereaz. Horrela, erakundeak maiz hartzen du parte Europako hainbat sare, topaketa eta ekimenetan. Ekimen horiek nazioarteko zenbait erakundek sustatzen dituzte, hala nola Europako Kontseiluak, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, Europar Batasunak eta Nazio Batuek.

Jarduera hori garatzeak eta horretan sakontzeak eragina du, gure ustez, erakundearen jarduera egokian, Euskal Herritik kanpo duen ikusgarritasunean eta eskubideak babesteaz arduratzen diren beste eragile batzuekin lankidetzan aritzeko ahalmenean.

2017an, kanpoan eragina izan duten honako ekintza hauetan parte hartu du Ararteko erakundeak:

- **Martxoak 13.** Txosten hau egin zen: **Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena Ezartzeko V. eta VI. Txostenen Txosten osagarria eta horren aukerako protokoloak. Euskal Autonomia Erkidegoa**". Kabinete-lana Arartekoaren egoitzan, Gasteizen. Nazio Batuekin lankidetzan.
- **Martxoak 15.** **Honako inkesta hau egin zen: OECD on line Survey-Ombudsman Institutions:** "The role of the Ombudsman in strengthening open government". Elkarlanean aritu zen Lankidetzarako eta Ekonomia Garapenerako Erakundearekin (OCDE)
- **Martxoak 20.** **Ustelkeriaren kontrako Estatuen Taldeak (GRECO) (Groupe of States Against Corruption)** egindako bileran parte hartu zuen. Strasbourg (Frantzia). GRECO taldeko kideekin elkarlanean aritu zen.
- **Martxoak 22.** **EHU-EB-Arartekoaren nazioarteko ikastaroan parte hartu zuen.** "The criminal procedure guarantees in light of the European Union legislation and the



jurisprudence of the European Court of human rights". Arartekoaren Prestakuntza/Sentsibilizazio ekintza. EHUrekin lankidetzan.

- **Apirilak 3-4. Europako IOIren (Herriaren Defendatzaileen Nazioarteko Institutuaren) Mintegi honetan parte hartu zuen: Human Rights Challenges in Europe II.** Bartzelona. Europa osoko herriaren defendatzaileekin eta Sindic de Greugesekin lankidetzan.
- **Apirilak 24. Biktimen Legeaz eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidez Eusko Jaurlaritzak egindako jardunaldian parte hartu zuen.** Txostenaren aurkezpena. Gasteiz. Fabián Salvioli Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeko lehendakari ohiarekin eta Jonan Fernández Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren arloko idazkari nagusiarekin elkarlanean.
- **Apirilak 26. Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordearen aurrean agertu zen arartekoa, Francesca Friz-Prguda ACNURren Espainiako ordezkariaren partaidetzarekin.** Gasteiz. Honako hauekin lankidetzan: Espainiako ACNUR, Francesca Friz-Prguda, Eusko Legebiltzarra, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Eusko Jaurlaritza, GKEetako eta nazioarteko erakundeetako (UNICEF, CEAR...) ordezkariak.
- **Maiatzak 12. "Zigor arloko prozesuaren bermeak Europar Batasunaren araudiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren argitan".** Donostia. Honako hauekin elkarlanean: Gubernance, EHU (Juanjo Álvarez Rubio eta José Luis de la Cuesta) eta Peter Csonka.
- **Maiatzak 16. Hizkuntza Komisarioen Nazioarteko Elkartearen (International Association of Language Commissioners) bileran parte hartu zuen.** Bileran kide formal gisa parte hartu zen, eta ponentzia bat aurkeztu. Cardiff (Gales). Hizkuntza gutxituen Europako Gutunaren Idazkaritzarekin elkarlanean.
- **Maiatzak 31 eta ekainak 1, 2 eta 3. Gonbidatzaileak eta antolatzaileak Georgia, Tbilisi eta Sukhumiren arteko Europako Kontseiluaren Adiskidetze Programak (CBMs) Euskadira egindako azterketa-bisitan.** Gaia: euskal hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredua aurkeztea eta Arartekoak hizkuntza-eskubideen arloan duen eginkizuna, giza eskubide gisa; eskoletarako bisitak; hitzaldiak; euskal erakundeekin egindako topaketak. Gasteiz. Honako hauekin lankidetzan: Europako Kontseilua, Georgiako Ombudsmanak Tbilisin duen Adiskidetze Ministerioa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kanpo Ekintza Sailak.
- **Ekainak 8 eta 9. Oñatiko Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutuaren nazioarteko Workshop-a: "The Ombudsman and Administrative Justice: From Promise to Performance".** Parte hartzea eta ponentzia aurkeztea. Oñati. Honako hauekin lankidetzan: University of Groningen NL/University of Sheffield UK, Europako osoko akademikoak eta herriaren defendatzaileak.
- **Ekainak 19 eta 20. European Network of Ombudsmen erakundeak (ENO), Europako Herriaren Defendatzaileen Europako Sareak egindako bileran parte hartu zuen.** Brusela. Europako Ombudslady Emily O'Reilly-rekin eta Europa osoko herriaren defendatzaileekin elkarlanean.

- **Ekainak 21. Holandako Ombudsmanaren Ikerlan honetan hartu zuen parte: Migration flows and refugees.** Kabinete-lana erakundearen egoitzan, Gasteizen. Honako hauekin lankidetzan: Holandako Ombudsmana, IOI European Board.
- **Uztailak 12. Gonbidatzaileak Galesko Gobernuak (UK) Hizkuntza Politikaz egindako azterketa-bisitan.** Bilbo. Honako hauekin elkarlanean: Bethan Webb, Deputy Director of the Welsh Language Division at Welsh Government; Eusko Jaurlaritz eta EITB.
- **Uztailak 24 eta 25. Greziako, Herbeheretako eta Euskadiko herriaren defendatzaileen topaketa: Migrazioa eta errefuxiatuak.** Atenas. Honako hauekin lankidetzan: Andreas I. Pottakis (Grezia) eta Reinier van Zutphen (Herbehereak).
- **Irailak 14 eta 15. Parte hartu zuen** oinarrizko eskubideak defendatzeaz eta terrorismoaren kontrako politikez hitz egiteko asmoz **Europako Kontseiluak antolatutako bileran.** Strasbourg. Europako Kontseiluarekin eta Frantziako Herriaren Defendatzailearekin lankidetzan.
- **Irailak 18-20. ENOC (Haur eta Nerabeen Europako herriaren defendatzaileak) Sarearen jardunaldietan parte hartu zuen.** Arartekoa ENOCeko kide berri berretsi zuten. Helsinki. ENOCekin elkarlanean.
- **Irailak 28 eta 29. Adituen Workshop batean parte hartu zuen, gai honen gainean: Europar Batasuneko nazioetako eta eskualdeetako ombudsmanek eta erakundeek hainbat kasu kudeatzea eta ekimenak ex officio bultzatzea, Europako zuzenbidea tartean sartuta.** Brusela. Europako defentsa-erakundearekin eta Europako beste herriaren defendatzaile batzuekin lankidetzan.
- **Urriak 26. Beste batzuekin batera antolatu, parte hartu eta ponentzia aurkeztu zuen nazioarteko jardunaldi honetan: Energia-pobretasuna Euskadin: neurriak eta jarduera egokiak.** (Ficoba) Irun. Honako hauekin lankidetzan: Irungo Udala, EHU, beste udal batzuk eta Frantziako Energia arloko Ombudsmana.
- **Azaroak 06 eta 07. "Own Initiative" izeneko Workshop-era joan eta parte hartu zuen.** La Haya. Honako hauekin lankidetzan: Dutch National Ombudsman (gonbidatzailea) eta Europa osoko herriaren defendatzaileak.
- **Azaroak 07. Europako IOIren ikerlan honetan parte hartu zuen: Migration flows and refugees.** La Haya. Honako hauekin lankidetzan: Dutch National Ombudsman (gonbidatzailea) eta Europa osoko herriaren defendatzaileak.
- **Azaroak 13 eta 14. Haur eta Nerabeen Defendatzaileen eskualdeko topaketa honetan parte hartu zuen:** "Safeguarding and protecting the rights of children on the move in Europe: The Challenge of Social Inclusion". Atenas. Honako hauekin elkarlanean: Greece Ombudsman for Children's Rights (gonbidatzailea), UNICEF, Europako Batzordea eta ENOC
- **Abenduak 11. Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna zela eta, Christos Giakoumopoulos** Europako Kontseiluko Giza Eskubideen eta Zuzenbide Estatuaren arloko zuzendari nagusiak emandako hitzaldia. Bilbo.



## 2018AN USTEZ EGINGO DIREN JARDUNALDIAK

- **2018ko urtarrilaren 23a eta 24a. Workshop honetan parte hartzea: Human Rights on the Digital Age (Giza Eskubideak Aro Digitalean).** Tallin, Estonia. Ülle Madise Estoniako Chancellor of Justice-ekin lankidetzan.
- **2018ko maiatza. Workshop hau antolatzea: The Right of the People to Good Environmental Governance: The role of European Ombudspersons in protecting the right to a suitable environment (Pertsonen ingurumen gobernanzarako dituzten eskubideak: Europako herriaren defendatzaileen eginkizuna ingurumen egokia izateko eskubidea babestean).** Euskadi. Europako IOIrekin elkarlanean.
- **2018. Globernance-ekin batera, honako ekitaldi honetan parte hartzea: "Ustelkeria, gardentasuna eta ondo gobernatzea".** Honako hauekin lankidetzan: Globernance, Drago Kos (OCDE), Ustelkeriaren kontrako, Gobernanzako eta Autogobernurako Batzordeko lehendakaria.
- **2018ko irailaren 25a, 26a eta 27a. Oinarrizko eskubideei buruzko 2018ko Forumean parte hartzea.** FRA Fundamental Rights Forum 2018. Viena.

## **AURREKONTUAREN AURREPROIEKTUKO GAI BERRIAK**

2018ko ekitaldirako aurrekontuaren aurreproiektuak bere baitan hartzen dituen kapituluak banan-banan azalduko badira ere, bi elementu nabarmendu nahi ditugu:

### **1. Langile kopurua gehitzea**

Arestian aipatu dugunez, erakundearen jarduerak dezente areagotu dira, bereziki, azaldutako kexei dagokienez. Horren ondorioz, indartu beharra dago Ararteko erakundearen lantaldea, izan ere, lan-gehitze hori bere horretan mantenduko dela eta, agian, hazi ere egingo dela uste baitugu, Arartekoa finkatutako erakundea delako, herritarrek gero eta gehiago ezagutzen dutelako, eta horiek egunetik egunera gehiago erabiltzen dutelako herri-administrazioekin dituzten arazoak konpontzeko, batez ere pertsona askori eragiten dioten arloetan: gizarteratzea, etxebizitza, diru-sarrerak bermatzeko errenta, e.a.

Hala ere, langile kopurua doi-doi gehitzea pentsatu da, hain zuzen ere, bi lanpostu sortzea: bata, arloko teknikariaren postua, eta, bestea, idazkariarena.

Arloko teknikariaren lanpostua betetzen duenak batik bat kexak bideratzen lagunduko du; horregatik, arlo juridikoan lanbide-prestakuntza balioaniztuna izan beharko du, bi hizkuntza ofizialak jakin beharko ditu, eta hobe atzerriko hizkuntza bat edo gehiago baldin badakizki. Idazkari elebidunaren lanpostua, berriz, Gizarte Harremanetako, Azterlanetako eta Modernizazioko Zuzendaritzari eta Arartekoaren beraren bulegoari laguntzeko sortu da, batez ere Estatuko,



Europako eta nazioarteko foroetan parte hartzeko sortzen den jarduerarekin lotuta.

## 2. Europako Biltzarra, IOI Sareko estatu kideetako ordezkarien artean

**2018an IOIren (International Ombudsperson Institute) Nazioarteko Biltzar hau egiteko asmoa dago:** "The Right of the People to Good Environmental Governance: The role of European Ombudspersons in protecting the right to a suitable environment".

Ingurumen eskubidea –hirugarren belaunaldiko giza eskubidea- pertsonen munduko baliabide naturalez zentzuz eta modu iraunkorren gozatzeko eskubidetzat hartzen da, eta zenbait tresna juridikotan gauzaten ari da, Estatuan nahiz nazioartean, botere publikoen printzipio edo betebeharrak gisa, herritarrek ingurumen seguru eta osasungarriaz goza dezaten bermatzeko. Gainera, eskubide hori formulatzean, funtsezko printzipio orokor bat adierazten da beste giza eskubide batzuk babesteko, hala nola bizitzarako, osasunerako edo bizimodu duina izateko eskubidea guztientzat, batez ere kalteberenentzat.

Ekintza-eremu hori pixkanaka herriaren defendatzaileen eginkizunean sartuz joan da, herri-administrazioen jardura ikuskatzeko duten betekizunaren zati bat bezala, eta gaur egun bere ekintza-eremuetako asko gurutzatzen ditu.

Lehen adierazi dugunez, Arartekoak konpromiso argia hartu du giza eskubideak hainbat arlotan babesteak berekin dakartzan erronkekin.

Bere jardura burutzean, kontuan hartzen du eskubideak bermatzeko Europako sistema sendotzea osagai nagusi bat dela; horretarako, hainbat esparru sortu behar dira elkarlanean aritzeko, jardura egokiak trukatzeko eta elkarrekin hausnar egiteko. Arartekoak hemen eskubide horiek bermatu behar dituzenez gero, eremu guztietan egon behar du, batez ere kontuan hartzen bada erakunde-buruak eskarmentu handia duela giza eskubideak defendatzen, eta, horregatik, egoera bereziki egokian dagoela ekarpen garrantzitsuak egiteko.

Testuinguru horretan kokatzen da Nazioarteko Biltzarra; jardura aitzindari horren bidez Estatuak eta Estatuaren mendeko herriaren defendatzaileen oraingo eta geroko eginkizuna aztertu eta bultzatu nahi da pertsonen ingurumenerako eta ingurumen arloko gobernantza egokia izateko duten eskubidea sustatzeko orduan. Hori egiteko, maila anitzeko gobernu-ekintzak indartu behar dira, esparru politiko, ekonomiko eta sozialean esku hartzen duten eragile publiko eta pribatu guztien lankidetzarekin.

Herriaren defendatzaileek nazioartean gero eta presentzia handiagoa izateak berriztapena gertatzen da munduan giza eskubideak gozatzeko, izan ere, beren zaindari-lanaren eta herri-administrazioekin duten harremanaren bitartez konpromisoak benetan betetzea indartzen dute, konpromiso horiek beren eskumen-eremuan adierazte hutsetik harago. Presentzia gero eta nabarmenago hori, jakina, mundu osoko herriaren defendatzaileek giza eskubideen nazioarteko araubidea beren eskumen-eremuetan ezar dadin ziurtatzeko asmoz zenbait



hamarkadatan egin duten lanaren ondorioztat hartu behar da. Gainera, oro har, burujabeak izateagatik bereizten dira, herritarren arazoak hurbilagotik ezagutzeagatik, bertako informazio edo gertakari zehatzen berri izateagatik, horiek batzuetan ihes egiten baitiote nazioarteko erakundeen begiradari.

Beste ikuspegi batetik begiratuta, Arartekoak gure mugez gaindi presentzia eraginkorra izateak herrialde mailako garrantzi estrategikoa hartzen du. Egiaz, hori lagungarria da, dudarik gabe, Euskadik gizarte dinamiko eta berritzailearen irudia izan dezan. Irudi horren arabera, Euskadik onartzen du komunitate juridiko eta balioen komunitate zabalago bateko (Europakoa) kide dela, ezagutzen ditu giza eskubideak babesteak oso eremu desberdinetan eta, zehazki, ingurumena gobernatzeko arloan gaur egun sortzen dituen erronka orokorrak, eta horiekin konprometituta dago.

"The Right of the People to Good Environmental Governance: The role of European Ombudspersons in protecting the right to a suitable environment" izenburuko Nazioarteko Biltzarra, IOIrena (International Ombudsperson Institute), Euskadin egingo da, maiatzean, eta arlo horretako aditu askok hartuko dute parte bertan, baita bertako, Estatuko eta nazioarteko erakunde garrantzitsu batzuetako ordezkariak ere.

Aukera paregabea izango da arlo horretan maila gorena duen talde bati abegi egiteko; jarduera egokiak eta ezagutza berriztatzailea identifikatu eta eskuz aldatzeko; herriaren defendatzaileen eskumenetatik abiatuta, ingurumen arloan gardentasuna, parte-hartzea eta justizia bultzatuko dituzten ekintza-ildoak sustatzeko. Horretarako, arretaz aztertuko dira ingurumena ondo gobernatzeak Europan orain sortzen dituen erronkak, baita horiek herritarrengan duten eragina ere, batik bat talderik kalteberenengan.

Gainera, hasiera-ekitaldian, euskal erakunde guztiek eta Europa osoko (Espainia, Frantzia, Britainia Handia, Alemania eta Italia, besteak beste) herriaren defendatzaileek hartuko dute parte. Azkenik, aipatu beharra dago ekitaldi horrek hedabideetan zabalkunde handia ziurtatzen duela, euskal eremutik haragokoa.





## GASTUEN EGOERA

### 1. KAPITULUA – LANGILEEN LANSARIAK

Kapitulu honetako kreditua guztira **HIRU MILIOI, SEIEHUN ETA HOGEITA HAMASEI MILA ETA BOSTEHUN EUROKOA (3.636.500,00)** da, soilik zenbait doikuntza egin ondoren; beraz, %5,52 gehitu da joan den urtekoaren aldean.

Aurrekontuan agertzen den soldata-igoera Eusko Legebiltzarraren langileentzako aurreikusita dagoena bera da, Eusko Jaurlaritzak igoera hori aintzat hartu baitu euskal administrazio orokor osorako.

Gainerakoan, Gizarte Segurantzari dagokion partida indarreko araudiko azken aldaketetara egokituta agertzen da aurrekontuan.

### 2. KAPITULUA – ONDASUN ARRUNTEN EROSKETA ETA ZERBITZUAK

Kapitulu honetako kreditua, guztira **MILIOI BAT, EHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA ETA BOSTEHUN EUROKOA (1.130.500,00)** da.

Horrela, gastua %6,28 gehitu da 2017koaren aldean.

Arartekoak behar bezala jarduteko ezinbestekoak diren jardueretarako gastua ahalik eta gehien murriztuz egiten dira gutxitze horiek.

### 6. KAPITULUA – EGIAZKO INBERTSIOAK

Kapitulu honetako kreditua, denera, **HOGEITA ZORTZI MILA EUROKOA (28.000,00)** da. Hortaz, aurreko ekitaldiko inbertsioari eutsi zaio.



## SARREREN EGOERA

2016. urteko superabita 46.500,97 eurokoa izan zen. Beraz, sarrera gisa gehituko dira Ararteko erakundearen 2018ko aurrekontuan, 4. kapituluan –Transferentzia Arruntak–, 411.01.00 partidan –Aurreko urteetako superabita–.

Gure ustez, kapitalak ematen dituen korrituengatik 100,00 euroko ondare-sarrerak izango ditugu, aurrerakin itzulgarriak bihurtzean 5.299,03 euro jasotzea espero dugu eta beste argitalpen batzuen partidan, berriz, 100,00 euro. Hori kontuan izanik, sarreraren aurrekontua eta gastuena berdinduko bada, Eusko Legebiltzarrak honako kopuru hau transferitu behar du Ararteko erakundearen alde: **LAU MILIOI, ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HIRU MILA EURO (4.743.000,00)**.

Manuel Lezertua Rodríguez  
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 23a